

MUNIBE (Ciencias Naturales)	40	117-120	SAN SEBASTIAN	1988	ISSN 0027-3414
-----------------------------	----	---------	---------------	------	----------------

Recibido: 7-XII-1988
Aceptado: 19-I-1989

Kantabriako *Genista florida* L., S.L. Above the *Genista Florida* L., S.L. in Cantabrian country.

PALABRAS CLAVE: Plantas Vasculares, Cronología, Taxonomía, *Genista*, Península Ibérica.

KEY WORDS: Vascular Plants, Chorology, Taxonomy, *Genista*, Iberian Peninsula.

C. AEDO*

RESUMEN

Se presenta la distribución de *Genista florida* L. en la Cordillera Cantábrica, en cuadrículas UTM de 10 Km de lado. Se estudian las subespecies tradicionales, en especial sus características diferenciadoras, tales como el número de flores de cada inflorescencia, y se establece el estatus de estas plantas en el Norte de la Península Ibérica.

ABSTRACT

The distribution of *Genista florida* L. in the Cantabrian Country is presented, on a UTM grid 10 km square. Also, its traditional subspecies are studied, emphasizing the differential characteristics, such as the number of flowers for each inflorescence, and establishing the status of the plants from the North of the Iberian Peninsula.

SARRERA

Ohar honetan, espezieak Kantabrian duen banaketa zehazten da, eragin taxonomikoa duten ohar batzu gehituz.

Lehenengo irudian ikusten den bezala, espeziea Kantabriako hegomendebaldean bizi da, Liébana, Poblaciones, Alto Saja, Campoo, Valdeolea eta Valde-
rredibleko haranetan. Ez da hala ere menditar landarea, 300 m. tik 1500 m. bitarteko altitude mailan aurkitzen bai da. Itxas aldera ez da ageri, zihur aski klimaren ozeanitatearen eraginaz. Banakera eredu hau Asturias-en ere man tentzen du, non Mendilerroaren inguruan diren barneko haranetan bakarrik bizi den. Kantabriari dagokionez, egun ezagutzen dugun iparraldeko muga Peña Sagra deritzaion mendizerraren iparraldeko isurialdetik doa, Saja ibaiaren iturriak eta Reinosa-raino iri tsiz ekialderuntz, hementik Ebro-ko urtegiaren ekialdeko muturrean bukatu arte. Ekialderuntz, landare hau gero eta soilago bihurtzen da. Burgos-ko iparraldean ere ageri da (Las Machorras 30TVN5274) DUPONT-ek (1975:394) esan bezala, baina bide hontatik ez da Euskal He-

rriraino iristen (cf. ASEGINOLAZA & al., 1985:318). Hegoalderuntz Iberiar Mendizerratik jarraitzen du eta gainera Mendebaldeko Piriniotako leku gutxi batzutan azaltzen da (cf. BUBANI, 1900:453; VIVANT, 1977:330; VILLAR, 1980:136; AIZPURU & al., 1987:3).

LEKUAK

Jarraiean azaltzen da Kantabrian landare hau ezaguna den lekuen zerrenda. Banaketa mapa 10 km aldeko dituen UTM koadriku len gainean egin da. Leku batzu nahiz Kantabrietik kanpo egon, aldameneko lokalitateetan azaltzen direnak ditugu. Datu gehienak egileak mendian bertan eginiko behaketetan oinarritzen dira; datua herbarioko materialean edo bibliografi aipamen batean oinarritzen denean, bereziki izendatzen da.

BURGOS


30TVN36 Cabañas de Virtus (Valdebezana-ko Harana), 850m, Landa.

CANTABRIA

= 30TUN57 Espinama (Camaleño), VICIOSO (1953:105). Espinama eta Igüedri (Ca-

* Castelar, 47-10. 39.004 Santander (Cantabria).

- maleño), 1220 eta 970 m, isastia, RIVAS MARTINEZ & al. (1984:114).
- 30TUN66 Barrio (Vega de Liébana).
- 30TUN67 Valmeo (Vega de Liébana), 600 m, artelatzen artean. Vejo (Vega de Liébana), 950 m, isastia, RIVAS MARTINEZ & al. (1984:114).
- 30TUN68 Argüebanes (Camaleño), 700 m, ameztia.
- 30TUN77 Aniezo (Cabezón de Liébana), 1400 m, isastia. Framá (Cabezón de Liébana), GUINEA (1953:340).
- 30TUN78 Lebeña (Cillorigo-Castro), 1300 m, pagadi ertza.
- 30TUN86 Piedrasluengas-ko Mendatea (Polaciones), 1400 m, pagadia. Peña Labra (Polaciones), LOSA (1958:320).
- 30TUN87 Peña Sagra-ko Laiotza (Rionansa), 1600 m. Nansa ibaiaren goiko harana (Polaciones), DUPONT (1974:172).
- 30TUN96 Ormas (Hermandad de Campoo de Suso), 1300 m, ameztia. Barrio (Hermandad de Campoo de Suso), 950 m, isastia, RIVAS MARTINEZ & al. (1984:114). Palombera mendateko hego isurialdea (Hermandad de Campoo de Suso), DUPONT (1973:274).
- 30TUN97 Los Tojos, landa, P. Montserrat, Loriente herb.
- 30TVN05 Suano (Hermandad de Campoo de Suso), 1000 m, sahasia.
- 30TVN06 Puertos de Fuentes (Mancomunidad Campoo-Cabuérniga), 1100 m, isastia, Aedo herb. Palombera Mendatea, Font, VICIOSO (1953:105).
- 30TVN07 Saja eta Palombera Mendatearen artean, 1100 m, isastia.
- 30TVN14 Villanueva de la Nía (Valderredible), 750 m, ameztia.
- 30TVN15 Quintanilla (Enmedio), 850 m, landa.
- 30TVN16 Monte Solana pr. Bustamante (Campoo de Yuso), landa.
- 30TVN24 Ruerrero (Valderredible), 700 m, amezti bakandua. Cejanca (Valderredible), 700 m, isastia, RIVAS MARTINEZ & al. (1984:114).
- 30TVN25 Ijedo Mendia (Valderredible), 1000 m, *Q. petraea* hariztia.
- 30TVN26 La Población (Campoo de Yuso), hariztia, J. Patallo-k.



1. Irudia: *Genista florida* subsp. *polygaliphylla*-ren banaketa Kantabrian.

LEON

- 30TUN56 San Glorio-ko Mendatea (Boca de Huérgano), 1500 m.

PALENCIA

- 30TUN76 Camasobres (San Salvador de Cantamuda), 800 m.
- 30TUN95 Villabellaco (Barruelo de Santullán), 1300 m, amezti bakandua.
- 30TVN04 Cezura (Pomar de Valdivia), 900 m, landa.

Linneok bere *Genista florida* deskribatu zuenetik, honekin hestuki ioturik agertzen zaizkigun zenbait genista azaldu izan dira. Portugaleko iparralde-tik Broterok *Genista polygaliphylla* deskribatu zuen eta *G. leptoclada* Gay ex Spach, Durieu-k Asturiasen bildu zituen landareetan oinarritzen da. Biak barietate edo subespezie moduan eman ohi dituzte ondorengo botanikari desberdinak.

Gauzak honela, sortzen zaigun hauzia zera da, *G. florida* espezie homogeneotzat hartu behar dugun ala alderantziz, bere barnean infraespezifikoak izanogo diren taxoi desberdinak onartu ditzakegun.


NIETO-k (1985:110) adierazten duen bezala, VIVANT-ek (1977:330) subsp. *polygaliphylla* (Brot.) Coutinho eta subsp. *leptoclada* (Gay ex Spach) Coutinho desberdintzeko erabiltzen dituen ezaugarrien korrelazioa ez da batere sendoa. Beste hainbeste gertatzen da VICIOSO-k (1953:103-107) zentzu berean ematen dituen arrazoiekin.

Gure eritziz, beste ezaugarri batzu erabiliz, adibidez loregutxidun molkoak, posible da molko lorenizak dituen *Genista florida* tipikotik taxoi subespezifiko bat desberdintzea. Bigarren irudian ageri dira MA eta MAF-en bildurik dauden materialeetan (78 lagin) eginiko behaketen emaitzak. Hauetan infloreszentzia bakoitzak dituen lore kopurua kontatu da, da-

tuak ondorenean maiz tasun sailetan bildu direlarik. Elkartzen baditugu Sistema Central-eko erdi eta ekialdeko laginak alde batean eta Iberiar Sistema, Kantauri Mendikatea, Galiza, Portugaleko iparraldea eta Sistema Central-en mendebaldeko laginak bes-tetik, bi gailur eta iragapen tarte bat lortzen ditugu. Lehen gailurra 9-10 lora kopuruaren inguruan ageri da; lehen eginiko banaketan Iberiar Penintsulako ipar eta mendebaleko laginak osatzen dute. Bigarrena, 25 lore kopuruaren inguruan, Sistema Central-eko erdi eta ekialdeko landareei dagokio. Bi area hauek elkartzen diren lekue tatik datoz erdibideko kopurua (11-15 lore) duten landare gehie nak, bi subespezie artean eman ohi den ereduazko iragapena agertuz. Nahiz eta lagin kopurua oso zabala ez izan, abiapuntu ona deritzogu arraza geografiko bat onartzeko; honek subsp. *polygali phylla* (Brot.) Coutinho deitura beharko luke. Gainera, lortutako emaitzak bat datoz eginiko kanpo behaketekin, bereziki sakonak subsp. *polygaliphylla*-ren kasuan, zeinek, lore kopuruari dagokio nez, homogenotasun aipagarria ageri duen kantauriar populazioetan. Honela gauzak, *Genista florida* edo *G.leptoclada*-ren kantauriako aipamen zaharrak (LERESCHE & LEVIER (1880:41,e.a.), WILLKOMM (1880:436), COLMEIRO (1886:60) eta orainagokoak ere, *polygaliphylla* subespezieari atxeki behar zaizkia

Hala ere, aurkeztu dugun itaunketa erabakitze-ko, ohar honen helburuetatik kanpo geratzen den ikerketa taxonomiko zehatzago baten beharra ageri da. Alde honetatik, *G. florida* L.-ri buruz zabalduko eritzi sintetikoegien aurrean, aurkakoak eusteko ere arrazoi sendoak ba daudela azaldu nahi izan dugu.

Azkenik, nire eskerrona agertu nahi nieke M. Laínz-eri txosten honen irakurketa kritikorengandik



2.Irudia: Lore zenbakien maiztasun sailak, datuen banaketa geografikoa kontuan izanik.

eta Juan Patallo-ri kanpo behaketen laguntzagatik; Iñaki Aizpuru eta Pilar Catalán-ek bibliografi bilketa eta euskeratze lanetan lagundu zidaten; halaber, behaturiko herbarioen arduradunei.

BIBLIOGRAFIA

AIZPURU, I., CATALAN, P. & AEDO, C.

1987 Aportaciones al conocimiento de la flora navarra. *Fontqueria*, 14 1-8.

ASEGINOLAZA, C., GOMEZ, D., LIZAU, X., MONTSERRAT, G., MORANTE, G., SALAVERRIA, M.R., URBE-ECHEBARRIA, P.M. & ALEJANDRE, J.

1985 *Catálogo florístico de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa*. Vitoria.

BUBANI, P.

1900 *Flora Pyrenaea*. Vol. 2. Mediolani.

COLMEIRO, M.

1886 *Enumeración y revisión de las plantas de la Península hispano-lusitana e Islas Baleares*. Vol. 2. Madrid.

DUPONT, P.

1973 Synécologie d'une bruyère atlantique: *Erica vagans* L. *Colloq. inter. sur la végét. des landes d'Europe occid.*: 257-286. Lille.

1974 Le chêne tauzin (*Quercus pyrenaica*) et la végétation associée dans la province de Santander (Nord de l'Espagne). *Colloques Phytosoc.* 3: 167-181.

1975 Sur l'intérêt phytogéographique du massif du Castro Valnera (montagnes cantabriques orientales). *Annales Inst. Bot. Cavanilles*, 32 (2): 389-396.

GUINEA, E.

1953 *Geografía botánica de Santander*. Santander.

LERESCHE, L. & LEVIER, E.

1880 *Deux excursions botaniques dans le nord de l'Espagne et le Portugal*. Laussane.

LOSA, T.M.

- 1958 Catálogo de las plantas que se encuentran en los montes palentino-leoneses. *Anales Inst. Bot. Cavanilles*, 15: 243-376.

NIETO, G.

- 1985 Flora orófila del SW de León. *Ruizia*, 2.

RIVAS MARTINEZ, S., DIAZ, T.E., FERNANDEZ PRIETO, A.J., LOIDI, J. & PENAS, A.

- 1984 *Los Picos de Europa*. León.

VICIOSO, C.

- 1953 Genisteas españolas, I. *Genista*, *Genistella*. *Bol. Inst. Forest. Invest. Exp.*, 72: 155-258.

VILLAR, L.

- 1980 Catálogo florístico del Pirineo Occidental español. *Publ. Cent. Pir. Biol. Exp.*, 11: 1-422.

VIVANT, J.

- 1977 Sur quelques plantes méconnues des montagnes d'Aspe dans les Pyrénées-Atlantiques. *Bull. Soc. Bot. France*, 124 (5-6): 329-335.

WILLKOMM, M. & LANGE, J.

- 1880 *Prodromus florum hispanicae*. Vol. 3. Stuttgart.